

# 2020raKO AURREKONTU PROIEKTUA

*Un proyecto de presupuestos que  
prioriza el bienestar de las y los tolosarras* \_\_\_\_\_ 02 or.

**TRIBUNA**  
*Alderdien iritzia*  
14 or.

**ALBISTEAK**  
*Actualidad tolosarra*  
10 or.

**AGENDA**  
*¿Qué quieres hacer?*  
15 or.



# PERTSONAK ARDATZ DITUEN AURREKONTU- PROIEKTUA

# H


erritarren ongizatea bermatze aldera, proiektu estrategikoak gauzatzea eta etorkizuneko egitasmo berrien oinarriak lantzea dira 2020ko aurrekontu-proiektuaren helburu nagusiak. Eraginkortasuna lehenetsiz, herritarrei kalitatezko zerbitzuak eskaintzen jarraitu nahi da, eta, era berean, jasagarritasunaren bidetik neurri zehatzak hartu.

Elkarlanean etorkizuneko Tolosa marrazten jarraitzeko eta komunitatea sendotzeko ere proiektu berriak abiaraziko dira herritarren partaidetzaren eta ahalduntzearen bitartez.

Inbertsio nagusiak proiektu estrategikoak gauzatzera eta proiektu berrien oinarriak lantzea bideratuko dira; besteak beste, Emakumeen Etxearen eraikuntzara, Abegi zentroko konponketetara, aparkaleku arazoari irtenbidea emateko azterketara eta Zumardi Txikirako proiektuaren idazketara, kultur etxea egokitzeko proiektura, aldaketa klimatikoaren aurkako planera, energia berriztagarrien inguruko ekintza zehatzetara eta hondakinen inguruko kontzientziazio kanpainetara.

Las inversiones principales se destinarán al cumplimiento de los proyectos estratégicos, así como a la elaboración de las bases de nuevos proyectos, como son la construcción de la Casa de las Mujeres, la obra de Abegi, el estudio sobre los problemas de aparcamiento y los proyectos para Zumardi Txiki y la Casa de Cultura, el Plan para Combatir el Cambio Climático y acciones concretas sobre energías renovables y campañas de concienciación para generar menos residuos.

## Aurrekontuen banaketa




### 1.

#### ANTOLAKUNTZA ORGANIZACIÓN

Udal eraginkorragoa, erabakitzaileagoa eta berdinzaleagoa lortu nahi da antolaketan-alorrean, betiere herritarren behar eta eskakizunei erantzunez, eta zerbitzuen kalitatea etengabe hobetuz.

#### Aurrekontuaren % 27,84 bideratuko da antolaketan-alorrera

El área de Organización apuesta por un ayuntamiento más eficiente, decisivo e igualitario para responder de forma más adecuada a las necesidades de la ciudadanía mejorando de forma continua los servicios prestados.



+  
% 8,7  
GIZARTE-  
ZERBITZUETAN



## 2. HERRITARRAK CIUDADANÍA

Pertsonak ardatz dituen aurrekontu proiektua da 2020koa. % 8,7 handitu da Gizarte Zerbitzuetara bideratutako diru partida; babes soziala, beraz, lehentasunezkoa da tokiko ekonomia indartzea bezalaxe eta herritarren arloko aurtengo beste helburuetako bat ere komunitatea sendotzea izango da herritartasun aktiboaren eta ahduntzearen eskutik.

**Aurrekontuaren % 44,05 bideratuko da alor honetara**

Se destinará un 8,7% más a Servicios Sociales porque es un presupuesto social que tiene como objetivo garantizar el bienestar de las personas. Fortalecer la economía local y la comunidad también será importante este año y para ello se trabajará el empoderamiento de las personas para promover una ciudadanía activa.

**Pertsonak erdigunean jartzen dituen herri-administrazioa lortu nahi da, herritarrak izan daitezten etorkizuneko Tolosaren oinarri nagusia**

## 3. LURRALDEA TERRITORIO

Lurralde-alorrean espazio publikoa eta udal eraikinak baldintza onenetan egon daitezten bermatzea lehentsikoa da, baita, hirigintza-lan bitartez, herriko irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzea ere. Ingurumen-jasangarritasuna hobetzearen alde ere egingo da lan trantsizio energetikoa sustatuz.

**Aurrekontuaren % 28,11 bideratuko da alor honetara**

Mantener el espacio público y los edificios municipales en las mejores condiciones posibles, así como mejorar la movilidad y la accesibilidad por medio de diferentes actuaciones urbanísticas, será el objetivo principal a perseguir, también lo será fomentar la regeneración urbana integrada y la sostenibilidad medioambiental impulsando la transición energética.



## Lehentasunak



## Etorkizuneko Tolosa definituko duten proiektu berrien oinarriak

BASES DE NUEVOS PROYECTOS PARA DEFINIR LA TOLOSA DEL FUTURO


**2020. urtean, legealdirako kudeaketa-planean jasotako zenbait proiekturen oinarriak landuko dira.**



Proyecto para recuperar Zumardi Txiki.  
**Zumardi Txiki berreskuratzeko proiektuen idazketa.**



Proyecto de regeneración de la calle Rondilla.  
**Rondilla kalea zaharhertzeko proiektua.**



Proyecto de reorganización de la Casa de Cultura.  
**Kultur etxea berrantolatzeko proiektua.**



# EGITASMO ETA INBERTSIO NAGUSIAK

Plan de las principales inversiones

## Eraginkortasunean, aurrerapausoak

### UDATE

Herritarren arreta-zerbitzua sendotuko da.

### UDAL SISTEMA INFORMATIKOA

Udaleko hornidura informatikoa berrituko da herritarrei erantzun hobea emateko.



Refuerzo de UDATE y nuevo sistema informático para responder de forma más rápida y eficaz a las demandas de la ciudadanía



## Gizarte- alorra

### ABEGI

Eraberritze-lanak egingo dira, eta eguneko zein gaueko zerbitzua jarriko da abian.

### ADINEKO PERTSONAK

Zahartzaro aktiboa sustatze aldera, adineko pertsonen zaintza indartuko da.

### ALOKAIRUA

Alokairu soziala sustatzeko, etxebizitza hutsak birgaitzeko programa egokituko da.

### PREBENTZIOA

Genero-indarkeriari lotuta, prebentzio-kanpainak areagotuko dira.

## Hiri-ekonomiaren sustapena

### AZOKAK

Larunbateroko azoka indartzeko egitasmo berriak jarriko dira martxan.

### MERKATARITZA

Merkatariekin elkarlanean, haien proiektuak babestuko dira.

### COWORKING

Oriaburuko Emari Coworking guinea indartzeko kanpainak egingo dira.

### TURISMOA

Bisitariak Tolosara erakartzeko kanpaina berriak abiaraziko dira,

turismoa hiri-ekonomia indartzeko aukera gisa sustatuz.

### INDUSTRIA, LANBIDE-HEZIKETA

Tokiko enpresetan berrikuntza sustatzeko diru laguntzak eskainiko dira eta Lanbide Heziketarekin eta enpresa-sarearekin elkarlanean lan egingo da tokiko industriaren etorkizuna bermatzeko.

### FORMAKUNTZA ETA ENPLEGU-PLANA

Garapen Agentziarekin elkarlanean formakuntza, ikastaro eta enplegu aukera berriak eskainiko dira.

Se trabajará por fortalecer la economía local en todos sus ámbitos



## Herritartasun aktiboa eta ahalduntzea



**TOLOSATZEN ESKOLA IREKIA**  
Proiektu piloto berriaren bitartez, agenda partekatua garatuko da Tolosako herritar eta eragileekin elkarlanean.

**GAZTERIA PLANA**  
Haur, nerabe eta gazteen inguruko azterketa egingo da.

**EMAKUMEEN ETXEA**  
Lehen fasea garatuko da.



### GOBERNANTZA-ORDENANTZA BERRIA

Partaidetzari eta gardentasunari lotutako ordenantza berria sortuko da.

### DIRU-LAGUNTZAK

Elkarte eta taldeek jasotzen dituzten diru-laguntzen inguruko ordenantza berraztertuko da.

### KULTUR-ESKAINNTZA

Kultur-eskaintza aztertuko da herritarren eskakizunetara egokitzeko.



Se pondrá especial atención en el conocimiento mutuo, en generar relaciones cercanas y de confianza, para lograr una ciudadanía activa y una comunidad más reforzada e implicada

## Jasangarritasuna, irisgarritasuna eta mugikortasuna

Además de un municipio sostenible, apostamos por un pueblo más accesible y amable

**ALDAKETA KLIMATIKOARI AURRE EGITEKO PLANA**  
Aldaketa klimatikoari aurre egiteko plangintza garatu eta neurri zehatzak hartuko dira.

**HIRIBUS ELEKTRIKOA ETA KARGARAKO PUNTUAK**  
Hiribusaren erabilera sustatuko da, eta auto elektrikoentzako kargarako puntuak gehituko dira.



**EGUZKI-PLAKAK**  
Plakak ferialekuan ezarriko dira.

**BIZIKLETAK**  
Bizikleten erabilera sustatuko da.

**KALEEN ZAHARBERRITZEA**  
Mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko eta merkataritza biziberritzeko xedez, Gernikako Arbola, Laskorain kalea, Paper kalea eta Euskal Herria plazako zorua berrituko dira.



# AZKEN BERRIAK

Actualidad

## TOLOSAKO KIROLARIEI ZEIN KIROL-ELKARTEEI AITORTZA, KIROL GALAN

Bi urtez behin egiten den Kirol Galan, Tolosako Udalak herriko kirolarien, kirol-taldeen zein elkarten lana eta lorpenak aitortu ditu Leidor aretoan egindako ekitaldian, beren lanari balioa emateko eta kirolak bultzatzen dituen balio anitzak gizarteratzeko helburuarekin. Tolosako kirol-elkarte guztiek

egindako proposamenetatik abiatuta, eta herriko beste hainbat eragilek bozkatuta, **Ane Iturria mendi korrikalariak jaso zuen kirolari onenaren saria eta Aimar Uson, Irene Caminos eta Ander Urangak ere saria jaso zuten. Kirol-jarduera eredu-garrienaren saria Elkartasun Krosak eraman zuen.**

## ETXEBIZITZA HUTSEN INGURUKO AZTERKETAREN BAITAN, TELEFONO BIDEZKO INKESTAK EGIN DIRA

El Ayuntamiento realiza encuestas sobre las necesidades de vivienda dentro del estudio sobre el parque de viviendas vacías para definir nuevas líneas de actuación, y lograr que el mayor número de las mismas sean puestas en alquiler.

Etxebizitza-behar eta eskaerei buruzko inkesta betetzeko aukera dago esteka honetan: En este enlace está disponible la encuesta sobre las necesidades y demanda de vivienda:


[https://es.research.net/r/TOLOSA\\_ETXEBIZITZA](https://es.research.net/r/TOLOSA_ETXEBIZITZA)

Tolosako Udalak etxebizitza hutsen inguruko diagnosa egiteari ekin zion urrian, eta, orain, etxebizitza beharren inguruko azterketa osatzeko telefono-deiak eta inkestak egin dira. Azterketa honen helburua da etxebizitza hutsen eta horien egoeraren zein herritarren etxebizitza-beharren inguruko diagnosi sakona egitea, hutsak dauden etxebizitzak merkaturatzea sustatzeko, eta, bide batez, horiek birgaitzeko udalak martxan duen diru laguntza programa egokitzeko, ahalik eta etxebizitza gehien alokairuan jar daitezela.

## GIZARTE-ZERBITZUEN GIDA IRAKURTERRAZA ARGITARATU DA BEHAR ANITZAK DITUZTEN HERRITARREN ESKURA INFORMAZIOA JARTZEKO



Guía de servicios sociales en lectura fácil



Pertsonak eta beren ongizatea udal jardunaren jomuga nagusia izanik, Gizarte Zerbitzuak ezagutarazteko eta herritarrengana gerturatzeko helburuarekin, Tolosako Udalak 2019ko apirilean gizarte-zerbitzuen gida argitaratu eta banatu zuen etxe guztietara, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen berri emateko. Orain, joan den urtean argitaratutako gida egokitu du udalak, gizarte-zerbitzuen gida irakurterraza garatuz, behar anitzak dituzten herritarren eskura informazioa jartzeko. Gida berria udal webgunean kontsulta daiteke, edota paperezko bertsioa udal eraikinetan eskuratu.

Herritarrei eskaintako zerbitzuak zazpi ataletan daude banatuta herritarrek modu errazen eskaintzen diren zerbitzu guztien gaineko informazioa

La guía pretende acercar los Servicios Sociales a toda la ciudadanía y explicar de forma accesible y comprensible los servicios prestados que están a disposición de todas y todos los tolosarras

izan dezaten: informazio, balioespen, diagnostiko eta orientabide-zerbitzua; adineko pertsonen eta desgaitasun- eta mendekotasun-egoerei lotutakoak; familia eta elkarbizitza (haurrak eta nerabeak); gizarteratze zerbitzua; indarkeria matxista eta sexu-erasoak; osasunerako eta adikzioen prebentziarako zerbitzua; eta gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta lankidetzak.

Halaber, informazioa 6 hizkuntza ezberdinetan jaso da.

Con el fin de garantizar la protección social de la ciudadanía, y poner en el centro a las personas y su bienestar social, el Ayuntamiento de Tolosa publicó el pasado año e hizo llegar una guía de servicios sociales a todos los domicilios para dar a conocer los servicios prestados. Ahora, el consistorio ha adaptado esta guía, transformándola en lectura fácil, para poner a disposición de los y las tolosarras con necesidades múltiples toda la información. Dicha guía está disponible en la web, y en soporte físico en los edificios de la administración.

## TOPIC PROTAGONISTA, AURTENGO FITUR NAZIOARTEKO TURISMO AZOKAN

*TOPIC protagonista, en la Feria Internacional de Turismo FITUR*



### Herriko mapa eta panel berriak

Tolosako Udalak herriko mapa eta panel turistiko berriak sortu ditu, erakargarriagoak eta ulertezkoak, bisitarien esperientzia hobetzeko. Herriko mapa berriak FITUR azokan aurkeztu ziren, lehenbizikoz.



Beste urte batez, Madrilgo FITUR Nazioarteko Turismo Azoka erakusleho izan da Tolosarentzat, urtaril amaieran. Aurtengo bisitan, Tolosako udal ordezkariak TOPIC museoan jarri dute arreta berezia haren X. urteurrenagatik. Horren aitakian, txotxongi-  
loen zentroari buruzko bideo promozionala aurkeztu zen azokan.

Azokak ere balio izan zuen beste herri eta herrialdeetako esperientzietatik ikasteko eta lankidetzak berriak sustatzeko; baina, bereziki, Tolosa aurkezteko, duen nortasunari eta izaerari eutsiz, herri modura eskaintzeko duen guztia ezagutzera emanez, bisitari berriak erakartzeko helburuarekin. Funtsean, Tolosa promozionatzea, eta turismo jasangarriaren aldeko apustua berrestea izan zen udalaren helburua, turismoaren bitartez hiri-ekonomia indartzeko.

Un año más, el Ayuntamiento de Tolosa participó en la Feria Internacional de Turismo FITUR, que tuvo lugar a finales de enero en Madrid. En esta edición, los y las representantes del consistorio pusieron especial énfasis en el museo TOPIC por su X aniversario, dándolo a conocer en la feria a través de un video promocional.

La feria también permitió conocer de primera mano las nuevas tendencias y experiencias de otros municipios y países, y crear nuevas colaboraciones. Pero, sobre todo, sirvió para dar a conocer Tolosa, y su oferta como municipio para atraer visitantes promoviendo un turismo sostenible que ayude a fortalecer la economía local.

## 'BIZITZARI KANTUA' PROIEKTUA, ZAHARTZE AKTIBOA ETA OSASUNGARRIA BULTZATZEKO

Bizitzari Kantua proiektua aurkeztu zuten urtaril amaieran Inmakulada ikastetxeko eta Iturriza Tolosaldeko Helduen Elkarteko ordezkariak. Tolosako Udalarekin batera, Mugi Tolosa egitasmoaren barruan garatu duten proiektua da 'Bizitzari Kantua', zahartze aktiboa eta osasungarria bultzatzea helburu duena.

**Adinekoek bizi ditzaketen menpekotasun-egoerak saihestea eta adinekoen ahalduntzea bultzatu**

**nahi ditu, besteak beste, proiektuak.** Hala, Inmakulada ikastetxeko ikasleak eta Iturriza elkarteko erabiltzaileek elkarlanean egingo dute lan: zahartze aktiboarekin eta menpekotasunarekin zerikusia duten ezagutzak erabiltzaile aktiboekin garatuko dituzte, ikasleek ikasgelan garatzen dituzten programak eta estrategiak erabiltzaile errealetan aplikatuz, eta bide batez, adineko pertsonen zerbitzu berri bat eskainiz.



## GOBERNANTZA EREDU BERRIETAN SAKONDUZ

**Gizartea aldatzen doan heinean, garai berrietara egokitzeko beharrak areagotuz doaz eta gobernantza eredu berriak udal jardunean txertatzea ezinbesteko bilakatu da herritarrekin elkarlanean aritzeko.**

Herri-estrategiak modu partekatuan lantzeko, aurreko legegaldian Tolosatzen egitasmoa abiarazi zen. Herritarrekin diagnosi eta ekintza-plan partekatua garatu zen eta aurrekontu parte-hartzaileak jarri ziren martxan. Ekindako biderei jarraiki, orain, proiektu eta egitasmo berriak abiaraziko dira, bereziki, herri-elkarrizketa sustatzeko, herritarren ahalduentzeko eta komunitatea sendotzeko helburuarekin.

### 1. Aurrekontu parte-hartzaileak urte osora luzatuta

Hausnarketa baten ondoren, prozesua nola hobetu aztertu eta aurrekontu parte-hartzaileen egitasmoa urte osora zabaltzea erabaki da udalaren eta herritarren arteko hartu-eman indartzeko.

### 2. Bisitak auzoz auzo, eta hainbat eragileekin

Bi astez behin, auzoz auzo bisitak egingo dira, ez bakarrik momentuko beharrak identifikatzeko, baizik eta etorkizunera begirako jardunak auzotarrekin eta auzo-elkartekin joratzeko. Halaber, joan den legegaldian enpresetara egingo dituzten bisitak berriz ere aktibatuko dira.

### 3. Tolosatzen Eskola Irekia herritarren ahalduntzeko

Jada talde motorra eratu da eta orain urteko jarduerak planifikatu da, herri agenda partekatua osatzeko. 3 ardatz edo helburu nagusi izango ditu planak:

- Herritarren trebakuntza eta ahalduntzea: ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak...
- Komunitatea sendotzea: herriko eragileekin arteko topaketak...
- Elkar-ezagutzan sakontzea: hainbat erakunde eskaintzen dituzten zerbitzuak...



## INAUTERIEGAN ERE, BIZIKIDETZAREN ALDE

Herritar, bisitari, parte-hartzaile, ikusle zein bizilagunen arteko elkarbizitza bermatzeko eta sustatzeko, hainbat neurri hartuko dira; besteak beste, kutsadura akustikoari aurre egiteko eta segurtasuna hobetzeko. Aurretik baina, horiek landu eta aztertzeko aholkularitza enpresa bat kontratatu du udalak, eta udal talde guztiek bat egin dute enpresak aurkeztutako proposamenarekin. Aurtengo neurriak zenbait eragileekin partekatu dira hainbat bileretan.

### Inauterietako araudi berezia:

#### Soinua

- Zarata-maila kontrolatzeko soinu-ekipoetan mugatzaile akustikoak jarriko dira (gehienez ere 90db).
- Txarngak uneoro errespetatu beharko dira eta emanaldirik ez den bitartean bolumena erdira jaitzi.
- 24:00etatik aurrera ezingo da musikarik jarri.
- Triangulua zaratarik gabeko gunea izango da.

#### Segurtasuna

- Zezen-plazarako sarrera txandaka eta banatuta egingo dute txarngak eta herritarrek, segurtasuna ber-

matzeko eta zezen-plazara modu ordenatuan sartzeko.

#### Ikuskatzaileak

- Inauteri egunetan zarataren inguruko neurketak egingo dira ezarritako irizpideak errespetatzen direla ziurtatzeko eta datorren urtera begira datu objektiboak izateko.

#### Prebentzioan indarra:

- Gazteen artean alkohol-kontsumo arduratsua sustatzeko eta indarkeria sexistari aurre egiteko, esku-hartze egitasmoak gauzatu dira eta egingo dira; esaterako, 'Ez dago ezer puntutik komara' eta #LIBRE-Nonahi leloen baitan.

### #LIBRENonahi



# TRIBUNA

## Alderdien iritzia



### Tolosarrentzat onena dena lehenetsiz eta defendatuz.

Sailtako arduradunekin landutako aurrekontu proiektua ezagutu aurretik aurkeztu zuen medioetan EH Bilduk bere proposamena. Egitasmoen %90a jada aurreikusia genuen eta egitasmo berriak txertatu edota gauzatzeko konpromisoa ere azaldu diegu hainbat bileretan, baina ez da nahikoa izan akordioa lortzeko EH Bilduk estrategia politiko-komunikatibo bati jarraitzen baitio.

Guk, guztion proposamenak kontuan izanik osatu dugu 2020rako aurrekontua, Tolosarentzat eta tolosarrentzat onena dena lehenetsiz eta defendatuz. Horregatik, Legealdi planeko proiektu estrategikoak gauzatzera eta berrien oinarriak lantzerantz bideratu ditugu aurtengo inbertsio nagusiak, etorkizuneko oinarriak gaurtik lantzen hasteko.

El no de Bildu a los presupuestos responde a una estrategia política. El 90% de las propuestas presentadas ya estaban recogidas en el proyecto de presupuestos: Zumardi Txiki, Rondilla... también incluimos nuevas, pero el acuerdo no ha sido posible. A pesar de ello, seguiremos teniendo en cuenta las propuestas de todas/os en beneficio de Tolosa y las y los tolosarras.



**Legealdiak molde berriak ekarriko zituenaren itzaropena genuen.** Legegintzaldi berrian Udala osatzen dugun alderdiok elkarrekin lanean arituko ginelakoan geunden, guztiok Tolosaren eta tolosarron ordezkari izatez gain, hauteskondeetan ikusitako indar banaketa estua medio.

Udal administrazioak alderdi tekniko eta politikoak ditu. Aurrekontuak prozedura teknikoak izan arren, erabaki politikoetan oinarritzen dira. Gobernuak aurrekontuak garatu eta oposizioak emendakinak aurkeztea udal askotako ohiko prozedura izanda ere, ez da dagoen bide bakarra, ezta biderik parte hartzaileena eta kolaboratiboena ere.

EH Bildun udal administrazioa kudeatzeko **molde berrien aldekoak gara**, eta lehen hilabeteetan aldeakartasunean oinarritutako eredu ezagutu badugu ere, lanean jarraituko dugu **elkarlanean oinarritutako kudeaketaren alde**.

Gu prest gaude, legealdiko proiektu estrategikoak aurrera eramateko elkarlanean aritzeko; proiektu horiek egikaritzeko epe eta gastuen aurreikuspen errealak aztertzeko eta txosten teknikoetan oinarritutako eztabaida politikoa izateko.

Honetarako, berriz, ezinbestekoa da elkarlan eta partehartze politikorako guneak sortzea. Eta nola ez, Udala kudeatzeko molde ireki eta parte hartzaileagoaren aldeko borondatea izatea. **Guk horrela ulertzen dugu herrigintza, herri-tarrekin eta tolosarrentzako lan egitea.**



2019. urtean hauteskondeek udal gobernu berriaren osaketa ekarri zuten. PNV eta PSE.EEK legealdi osorako akordio bat sinatu zuten eta honen ondorio da emandako bi pauso hauek: Legealdirako Kudeaketa Plana non hurrengo lau urterako helburu eta proiektu guztiak zehazten diren, epe eta aurrekontuekin batera eta, 2020. urterako **aurrekontuaren onarpena**.

En esta línea hay que entender los presupuestos aprobados por PNV y PSE.EE para el 2020, que ascienden a 29.185.229 euros. Hay que subrayar el esfuerzo que ha realizado el equipo de gobierno para incluir en los mismos la mayoría de las propuestas realizadas por la oposición. Son unos buenos presupuestos porque fortalecen nuestro modelo de bienestar y cohesión social y combaten la desigualdad, favoreciendo las políticas sociales. Responden a una parte importante de los servicios que reclaman los tolosarras. Las políticas sociales aumentan en un 8,7% y se dan los pasos para la primera fase de Emakume Etxea; en Deporte se renueva el campo de hierba artificial; en Urbanismo y Vivienda se acomete la remodelación de calles del centro de Tolosa y se destinan 200.000 euros para impulsar la utilización de viviendas de la Parte Vieja; en Movilidad y transición energética, se destinan partidas para la calificación energética de edificios municipales y el control de consumo energético, para instalación de luces LED y placas solares y se adquiere un bus eléctrico.

# AGENDA

Agenda osoa ikusgai: [agenda.tolosa.eus](http://agenda.tolosa.eus)

**OTSAILAK 28** Faemino y cansado: '17 veces'  
20:30ean, Leidorren.

**MARTXOAK 06** 'Erlauntza' antzezlan  
20:30ean, Leidorren.

**MARTXOAK 13** Kamerata Euskdivarius  
20:30ean, Leidorren.

**Kamerata EUSKDIVARIUS**  
L.V. BEETHOVEN (1770-1827)

**MARTXOAK 14** Pirritx, Porrotx eta Marimotots: 'Bizi Dantza'  
17:00ean, Leidorren.

**BIZI DANTZA**

**MARTXOAK 17** 'Fidelio' operaren zuzeneko emanaldia  
20:45ean, Leidorren.

ROYAL OPERA HOUSE

**MARTXOAK 20** 'Zaldi urdina' antzezlan  
20:30ean, Leidorren.

**MARTXOAK 27** El Regreso de Scar El Tributo Del Rey Leon 2  
20:00an, Leidorren.




# GIZARTE ZERBITZUAK ESKU-ESKURA GIDA IRAKURTERAZ BERRIAREKIN

CONOCE TODOS LOS SERVICIOS Y PRESTACIONES  
QUE TE OFRECEN LOS SERVICIOS SOCIALES  
EN ESTA NUEVA GUÍA DE LECTURA FÁCIL

ZERBITZU  
GUZTIAK  
7  
ATALETAN  
AZALDUTA

ORIENTABIDE-ZERBITZUA  
ADINEKO PERTSONAK, DESGAITASUN  
EDO MENDEKOTASUN-EGOERAK  
HAURRAK ETA NERABEAK  
GIZARTERATZEA  
INDARKERIA MATXISTA  
OSASUNA ETA ADIKZIOAK  
PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA



Zalantzarik  
baduzu  
**ZATOZ!**

Plaza Zaharra 6A  
20400 Tolosa, Gipuzkoa  
T 943 69 74 60  
gizartezerbitzuak@tolosa.eus

Jendaurreko arreta:  
10:00-13:00  
astelehenetik ostiralera,  
ostegunetan izan ezik.

